

# Mari Paz Jimenez, margolari ezezaguna

Artista zenbaiten lana bikaina izanagatik, itzalean geratzen da maiz: hala izan da Mari Paz Jimenezen kasuan. Hona margolariaren berri Euskadi Irratian.

Audioa entzun ondoren, aukeratu galderen erantzun zuzena



<https://labur.eus/io82I>

## 1. San Telmo museoak zer erosi du berriki?

- a) Mari Paz Jimenezen bi artelan.
- b) Margolariaren erretratu bakarra.
- c) Artistak eskuz margotutako bi aulki.

## 2. Zer dela eta joan zen Mari Paz Buenos Airesera?

- a) Jatorriz hangoa izanagatik: ez zen Euskal Herrikoa.
- b) Bertara ezkondu zelako.
- c) Gerraren ondorioz.

## 3. Baieztapen hauetatik zein da okerra?

- a) Oteizak maiz gutxietsi zuen.
- b) Euskal Herriko artista nagusienen lagun zen.
- c) Margolari honen lana betidanik ongi baloratua izan zen.



Argazkia: Pixabay

## 4. Jimenezen arte lanetan emakumeen arraza nabarmentzea zerk eragin zuen?

- a) Garai hartan sakonki landu gabeko gaia izateak.
- b) Bere jatorriak.
- c) Aurretik Euskal Herrian halako lanak egindako emakume-erreferente batek.

## 5. Zerk baldintzatu zuen Mari Pazen gai aukeraketa?

- a) Emakume izateak eta bizi zuen garaiak.
- b) Formazioa jasotzeko garaian izandako trabek.
- c) Bere sinesmen erlijiosoek.

## 6. Orduko emakume askok zer dela eta nahiago zuten modu figuratiboan margotu?

- a) Abstrakzioa lan irrazionaltzat hartzen zelako.
- b) Hobe baloratzen zelako emakumeek lan mota hori egitea.
- c) Abstrakzioa modan ez zegoelako.



Argazkia: Ondarebideak Euskomedia fundazioa

# ERANTZUNAK

1. b / 2. b / 3. a / 4. c / 5. b / 6. c / 7. a

## TRANSKRIPZIOA

Esataria 1. Gaur askorentzat ezezaguna den artista bati buruz hitz egingo diguzu, margolari bati buruz.

Arte-aditua. Bai.

Esataria 1. Mari Paz Jimenez da artista hori.

Arte-aditua. Bai. Artista oso inportantea Euskal Herriko panoraman, baina, tamalez, ez oso ezaguna.

Esataria 2. San Telmo museoak bere zenbait lan erosi ditu, ezta?

Arte-aditua. Bai. Bi besaulki...

Esataria 2. ...eta autoerretratu bat.

Arte-aditua. Bai.

Esataria 2. Ederra, ederrak biak, e! Oso lan ederrak dira.

Arte-aditua. Bai.

Esataria 2. Zergatik?

Arte-aditua. Ba bueno, Besaulkia... ba da holako, lehen planoan jarritako bi besaulki. Ba hor ikusi daitekeela ere bai... Pentsatu behar dugula garai frankistan egindako elizkizunetarako bi besaulki direla, hutsik agertzen direnak, eta hor nolabait mezu politiko bat ere irakur genezakeela, ez?

Esataria 2. Eta autoerretratu?

Arte-aditua. Mari Paz Jimenezen aurpegia agertzen da lehen planoan, pintatzen agertzen da. Ba holako autoerretratu tradizional batean. Zentzu horretan jada interesgarria da ze(ren) emakume izanda eta bizi zituen garaiak izanda bere burua emakume pintore profesionaltzat aldarrikatzea inportantea da...

Esataria 2. Esan dugu, Euskal Herriko guda-osteko artistarik garrantzitsuenetarikoa da bera...Baina jaio ez zen Euskal Herrian egin.

Arte-aditua. Valladoliden jaio zen, 1909an, baina umetan etorri zen Euskal Herrira, eta bere bizitza gehien-gehiena bertan eman zuen. Egon zen urte batzuek kanpora [kanpoan], ze(ren) ezkondu zenean, 33an, ba Madrilerara joan ziren, eta gero, 38an, guda zela eta erbesteratu egin ziren, eta Buenos Airesen egon ziren 45era arte. Eta gero, 45ean itzuli, eta Donostian bizitzen egon ziren hil zen arte. Hil zen 75ean. Orduan, bueno, jatorrizkoa ez, baina bihotzekoa, oso, oso euskal herritarra zen bera. Bai.

Esataria 2. Eta bere ingurukoek nola hartzen zuten?

(Hurrengo orrian jarraitzen du)

(Aurreko orritik dator)

Arte-aditua. Ba hiru garai ditu. Lehenengo garaia, surrealismoan hasi zen pintatzen. Eta behin itzuli zela hasi zen ba beste estilo batekin, ba errealistagoa zena, ez hain onirikoa, ez hain ametsen munduetakoa... Figuratiboa zen. Eta hor errepresentatzen zituen batez ere neskatilak, etxe barruko irudiak... Baina badago ezaugarri bat oso inportantea, dela Mari Paz Jimenez zela ijito-familia batekoa, eta bere irudi horietan emakume asko arrazializatutako emakumeak dira. Euskal artearen historian badaukagu halako artista bat hori ere landu zuena biografiatik, ez?, bere esperientzia pertsonaletik. Eta hori ez dago sakonki landuta. Oso interesgarria da.

Eta gero, azken garaia izan zen garai abstraktua. 50. [50] hamarkada-bukaeran, nahiko goiztiar, hasi zen jada abstrakzioan saiakerak egiten, eta bere azkeneko garaian, abstrakzioan margotu zuen 75era arte.

Esataria 2. Emakume izateak eraginik izan zuen?

Arte-aditua. Ba bai. Izan zuen, ziur. Alde batetik, ba hezkuntza jasotzeko zailtasun handiagoak izan zituelako ziur aski, eta gero batez ere, gaiak hautatzeko orduan eta bai nabaritzen dela bere esperientzia pertsonala emakume gisara. Azken finean, pentsatu behar dugu frankismoan bizitako emakume bat izan zela. Ez da kasualitatea, ziurrenik, etxe barruko irudiak margotu [margotzea], besaulki hauek, mezarekin lotuak daudenak... Bueno, holako imaginario (iruditeria) asko dauka ba intepretazio sozial eta politikoa izan dezakeena. Eta gero, azpimarragarria da ere, abstrakzioa margotu izana, ze(ren) emakume askok ez zuten abstrakzioa margotzen, kontsideratzen zelako lan arrazionalago bat, eta kritikak hobeto hartzen zituen emakumeengandiko irudiak, figuratiboak baldin baziren. Eta orduan, abstrakzioa margotu izana, eta pionera (aurrekari) bat izana, ba da erabat azpimarratzeko kontu bat, ze(ren) ziurrenik zailtasunak izan zituen.